

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 189/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 26koa. Honen bidez, Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko Programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dira, 2019. urterako.**

Azken hamarkadetan gure enpresak aritu behar diren merkatu oso-oso lehiakorren ezaugarriak areagotu egin dira, baldintza hauek eraginda: produktu, prozesu eta zerbitzuei ezarritako aldaketa teknologikoa, oso arin hedatzen dena eta bertan sartzeko erraza dena, beraz lan-eskuaren kostu txikiagoa duten lehiatzaile berriak agertzen dira; merkataritza askearen muga gero eta gehiago desagertzea; kapital-mugimenduen liberalizazioa; eta garraio- eta komunikabide-kostuak murriztea.

Azaldutako egoerari azken bosturtekoan gure ekonomiak jasan duen krisi ekonomikoa gehitzen badiogu, egoera da gure enpresen nazioartekotzea ez dela haiei dagokienez hain fenomeno berria, baina gure esportazioen kopururik handiena burutzen duen enpresa kopuru txiki baten estrategian bakarrik zegoela errotuta; aholkatu daitekeen jarduera bat izatetik enpresa kopuru gero eta handiago batentzat beharrezkoa izatera igaro da.

Baina enpresa txiki eta ertain askok ez daukate ez giza baliabide eta baliabide material nahikorik, ez behar besteko ezagutzarik, ez bazkideak lortzeko kontakturik, ez negozio-aukerarik eta merkataritza-praktikarik maila teknologikoagatik, urrun egoteagatik, tamaina eta kultura desberdinengatik lortzen zailak diren merkatuetan sartzeko. Halako enpresentzat, herrialdeen arteko mugak oztopo handia dira, beren jarduerak zabaltzeko gainditu behar dutena. Horregatik, enpresok beti edo ia beti Estatuaren eremuan jarduten dute; bertan kokatuta daude, eta nazioartekotzea ez dute beren estrategiaren barruan sartzen.

Enpresei —bereziki, ETEei— eskatzen zaizkien baldintzei bakoitzak bere aldetik aurre egitea zaila izanda, lankidetzaz hitzarmenak nazioartekotze klasikoaren alternatiba bikaina dira; izan ere, hitzarmenok malgutasun handia eskaintzen dute enpresen bizitzan zehar sor daitezkeen behar desberdinetara egokitzeko. Gainera, halako hitzarmenak ezartzeko ahalmen batzuk behar badira ere, edozein enpresak —bai eta txikiak ere— atera ahal die etekina hitzarmenoi. Hain zuzen, enpresa txikiak beste abantaila batzuk hobetu eta finkatzeko laguntza jasoko dute, eta beste baliabide batzuk eskuratu ahal izango dituzte, hazteko bide berriak irekitzen dituztenak eta aukera ematen dutenak proiektuak burutzeko eta bestela eskuratu ezin litzaketen helburuak lortzeko.

Baina lankidetzaz hitzarmenak ezartzeko zailtasunak ere badaude: komunikazio eta kontrol arazoak, kultur desberdintasunak eta desberdintasunak helburuetan (antolaketa-aren arloan zein lan metodoetan) eta enpresa parte-hartzaile bakoitzak jarritako baliabideen arteko desoreka.

Gainera, enpresek normalean ez daukate halako itunetan egoki aritzeko nahiko eza-gutza eta esperientzia. Askotan, lankidetzaz hitzarmenak ezartzeko hasierako mesfidantza handia egoten da; izan ere, beste enpresa batzuen esperientzian eta trebetasunetan oinarritu behar da, normalean gure bitartekoak erabiliz lortu ezingo genukeen emaitza lortzeko. Are gehiago, lankidetzaz hitzarmen batean parte hartu edo hartzen duten enpresek aitortzen dute ez dakitela nola jokatu egoki beren harremanetan eta hori dela zailtasunen iturri nagusia.

Horren ondorioz, enpresa txiki eta ertain gehienek ez daukate balizko bazkideak bilatzeko jarrera proaktiborik. Halako hitzarmenak aurrera eramateko zailtasunak eta huts egiteko arriskua dira lankidetzaren potentzialaren aprobetxamendu handiagoa oztopen duten faktoreak.



Azaldu den egoeraren ondorioz, laguntza ekonomiko hutsean oinarritutako enpresen arteko lankidetzak sustatzeko programek askotan ez dute izan espero zen arrakasta. Aitzitik, enpresen sustapen, tutoretza eta aholkularitzan gogor jardun duten profesioaletan oinarritutako programek emaitza hobekak lortu dituzte. Horrek agerian uzten du enpresak lankidetzan aritzeko giza alderdiek eta alderdi pertsonalek duten garrantzia.

Gure lurraldean, enpresa-lehiakortasunaren sustapenaren arloan lan egiten duten agenteak daude, enpresekin etengabe harremanetan daudenak eta sektore desberdinen ezaugarriak ezagutzen dituztenak. Agente horiek beharrezko laguntzaileak dira; enpresatik hurbil egoteagatik, enpresaren konfiantza edukitzeagatik eta enpresa-merkatuaren egoera ondo ezagutzeagatik, proiektuak diseinatu eta garatu ditzakete ETEen nazioartekotzea sustatzeko, enpresen arteko lankidetzak bultzatuz. Horretarako, ETEei nazioartekotzearen beharra eta abantailak ikusarazteko jarduerak egingo dira; zailtasunak eta mesfidantzak gainditzeko laguntzen duen adituen aholkularitza emango zaie, eta, aditu horiek, enpresarekin batera, ingurunea aztertuko dute, lankideak bilatuko dituzte, eta laguntza emango diete negoziazio-prozesuan eta azken erabakian.

Horregatik, dekretu honen xedea da enpresen lehiakortasuna sustatzea, gure enpresen nazioartekotzea erraztuz, batetik tokiko beste enpresa batzuekin batera lankidetzan arituz, kanpoko merkatuetara joateko, eta, bestetik, beste herrialde batzuetako enprekin harreman ekonomikoak ezarriz.

Dekretu hau eta dekretu honetan lortu nahi diren xedek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bere zeregina lortzeko –kanpoko merkatura irtenda Bizkaiko lehiakortasunaren hobetzean laguntzea– sail honek bere programak eta zerbitzuak garatzeko bultzatzen dituen jarduera-multzoaren osagaiak dira.

Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa; izan ere, haren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua onetsita, foru dekretu hau egitean kontuan hartu da foru arau horretan ezarritakoa.

Adierazitakoa dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundi honen Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26ko bazteraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe,

XEDATU DA:

I. TITULUA

### **OINARRIZKO EZAUGARRIAK**

#### **1. artikulua. — Dekretuaren xedea**

Foru dekretu honen xedea da Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko Programan jasotako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta deialdia onartzea 2019. urterako.

#### **2. artikulua. — Helburua**

Enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzea sustatzea, enpresen arteko lankidetzak jardueren bitartez. Jarduera horiek lankidetzak eta nazioartekotze jardueretan espezializatutako agenteek egingo dituzte.



Helburu horretarako, dekretu honek itzuli behar ez diren diru-laguntzak ematen dizkie erakundea onuradunei, 5. artikuluan deskribatutako eremuetako jardueri laguntzeko.

### **3. artikulua. — Erakunde onuradunak**

1. Enpresak eta /edo profesionalak batzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, sektorekoek nahiz lurraldekoek, jaso ahal izango dituzte foru dekretu honetan adierazitako diru-laguntzak.

Erakunde horiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Sozietate eta zerga egoitza Bizkaian izatea.
- b) Eskabideak aurkeztean EJZn alta emanda egotea.
- c) Ez izatea Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan.
- d) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak ez izatea.
- e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluan, hemendik aurrera 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzea.
- f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita diru-laguntzak itzultzeko ordainketak ere.
- g) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan, hemendik aurrera 5/2005 Foru Araua, azaltzen diren inguruabarretako batean ere ez egotea

2. Aurreko baldintzak eskaera aurkezten den unean bete beharko dira eta azken betebeharra eta ordainketa aintzatesten diren unera arte bere horretan mantendu beharko dira.

3. Prestakuntza zentroak, sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak ez dira entitate onuradun izango.

4. 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, hemendik aurrera 4/2005 Legea, erakunde onuradunek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

### **4. artikulua. — Gehienez aurkez daitezkeen eskabideak**

Erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztu ahal izango du deialdi batera, eta eskaeraren proposamena proiektu integral batena izan beharko da eta proiektu berria edo 2018an hasi eta lagundutako proiektu baten jarraipena izan daiteke.

Erakunde batek eskabide gehiegi aurkezten baditu, organo instruktoreak jakinarazi egingo dio eta 10 eguneko epea emango dio eskaeretako batzuei uko egiteko, bere nahierara. Berariazko erantzunik jaso ezean, erakundeak egindako lehenengo eskaera soilik hartuko da kontuan, eta horretarako, eskaerek sarrera erregistroan duten zenbakia hartuko da aintzat.

### **5. artikulua. — Diruz lagun daitekeen egitea**

1. Diruz lagun daitekeen egitatetzat joko dira erakunde onuradunek Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzat sustatutako proiektuak, beti ere proiektuen xedea Bizkaiko enpresen arteko lankidetzat atzerrira elkarrekin ateratzeko.

Proiektuak honako hauek jaso beharko ditu programatutako jardueren artean: enpresa parte-hartzaileen arteko akordioak ezartzea, kanporako misioak egitea eta proiektuan



parte hartzen duten Bizkaiko enpresen eta beste herrialde batzuetako enpresen arteko harremana.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, proiektuaren azken hartzaileak izan beharko dira jarduera ekonomiko nagusia ekoizpen sektoreena edo industriari lotutako zerbitzuena duten enpresak, eta enpresaren jarduera nagusia foru dekretu honen I. eranskinean zerrendatutako 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN) epigrafeetan jasota egon beharko da (apirilaren 13ko 475/2007 E.D., apirilaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 102 zenbakian).

Proiektuetan honako jarduera hauek sar daitezke:

- a) Proiektuan parte hartuko duten enpresak erakartzeko eta aukeratzeko prozesua.
- b) Enpresek nazioartekotzeko duten gaitasuna zehazteko jarduerak.
- c) Bezero edo laguntzaile izan daitezkeenei egindako bisitak.
- d) Prospekziarako misioak eta/edo merkataritzakoak.
- e) Alderantzizko misioak.
- f) Proiektuaren xede diren enpresak nazioartekotzeko prozesuaren bideragarritasuna zehazteko diren merkatu-aukeraketa eta azterketak.
- g) Produktuen erakustaldiak edo sustapenak.
- h) Azoketan eta merkataritzako ekintzetan egindako bilerak.
- i) Laguntzaileak eta banatzaileak bilatzeko eta aukeratzeko jarduerak

Proiektuan sartzen diren jarduera guztiek proiektuaren xedeekin erlazionatuta eta lerrotatuta egon beharko dute.

2. Proiektu hauek ezingo dute diru-laguntzarik jaso:

- a) Diru-laguntza jasotzeko gastua 40.000 euro baino gutxiagokoa duten proiektuak
- b) Azokak edo biltzarrak antolatzeko jarduerak.
- c) Merkatuari buruzko edo negozio-aukerei buruzko azterlanak egitea jarduera nagusizat duten proiektuak.
- d) Urtero-urtero egiten diren jarduerak, sektoreko azoketan parte hartzea, esaterako, eta aurkeztutako proiektuarekin zuzeneko harremanik ez dutenak.
- e) Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren jardueraren barruko berariazko zerbitzuek, programek edo beste plan batzuek osatzen dituzten jarduerak.
- f) Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren helburuekin bat ez datozen jarduerak edota Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eskumenean esparrukoak ez direnek.

Edonola ere, proiektuek ez dute sexuan oinarritutako bereizkeriarik egingo, eta sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerrarazteko ahalegina egingo dute.

## **6. artikulua. – Burutzeko epea**

Dekretu honen babesean garatutako proiektuak 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko epean burutu behar dira.

44/2018 Foru Dekretuaren babesean garatutako proiektuen jarraipena egiteko diren proiektuen kasuan, aintzat hartuko dira 2019ko uztailaren 1etik 2020ko ekainaren 30era arteko gastuak.

Salbuespen gisa, eta proiektua 2020ko ekainaren 30erako amaitu ezin dela arrazoiz aurrez ikusten bada, diru-laguntzaren erakunde onuradunak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren aurrean proiektua egikaritzeko epea luzatzeko eskatu beharko du. Eskaera hori 2020ko maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

Aipatutako sailak horren arabera emango du erabakia eta epearen iraupena zehaztuko du, gehienez 4 hilabetekoa izanik, 2020ko ekainaren 30etik zenbatzen hasita.



Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak berriazko ebazpenik emango ez balu horretarako legez ezarritako epean, administrazioaren isiltasunaren ondorioz eskaera ezetsi dela ulertuko da.

**7. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak**

1. Gastu hauek jaso ahal izango dute diru-laguntza:

**a) Langile-gastuak**

1. Diru-laguntzaren xede den proiektuarekin lotura zuzena duten erakundeko langileen kostua (soldata + karga sozialak).

Plantillako langiletzat hartuko dira honako hauek:

- Lan-harreman bat dela medio erakundeari loturiko pertsonak, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean jasota daudelarik.
- Lan-izaera duen harreman bat dela medio erakundeari loturiko langile autonomoak, baina, beren izaeragatik, ezin dutenak egon Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean.

2. Langile horien bidaiak eta ostatu-gastuak. Mantenu-gastuak ez dira sartzen.

**b) Kontratazioak**

1. Kanpoko aholkularitzaren gastuak, honako hauek egiteko:

- Enpresek nazioartekotzeko dituzten aukerak zehazteko.
- Xede-herrialdeari begira egindako merkatu-azterketa.
- Negozio-aukerak dituen herrialdea aukeratzeko.
- Atzerriko balizko bazkideak aukeratzeko.
- Proiektuaren koordinaziorako aholkularitza.

2. Dekretu honen 12.3.c) artikuluan aipatzen den Auditoretzaren Txostena.

3. Zerga egoitza Bizkaian duten proiektuaren enpresa jasotzaileetako (ikus artikulua honen 3. atala) langileen bidaia eta egonaldia.

4. Diru-laguntzaren xede den proiektuari egotzi ahal zaizkion beste gastu batzuk, behar bezala justifikatuak.

2. Ondoko hauek ezingo dute diru-laguntzarik jaso:

- a) BEZak, berreskuratu ezin daitekeen kasuetan ere.
- b) Zeharkako gastuak.
- c) Ibilgailuak alokatzearen gastuak, taxiaren gastuak eta norberaren ibilgailuaren gastuak.
- d) Koteleko aparteko gastuak edo telefono-gastuak
- e) Datu-base, argitalpen eta halakoetako aldizkako harpidetzak.
- f) Otorduak, diruz lagundutako proiektuarekin lotura zuzena duten gertaeretako cateringak izan ezik.
- g) Kontsumoko gastuak. Adibidez: elektrizitatea, ura, gasa, mezularitza, posta, garbiketa, telefonoa, zainketa, bulegoko materiala eta antzekoak.
- h) Diru-laguntzaren xedea den proiektuarekin inola ere identifikatu ezin diren gastu guztiak edota deialdi bakoitzean ezarritako epean burutzen ez diren gastuek.

3. Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:

Erakunde onuraduneko langileen kostuen (ordainsari gordinak eta zama sozialak) eta aholkularitzako kontratazioen gastuaren batura ezin da 50.000 euro baino handiagoa izan proiektu berrien kasuan, eta 2018. urtean 44/2018 Foru Dekretuaren bidez diru-laguntza jaso zuten proiektuen kasuan, berriz, ezin da 30.000 euro baino handiagoa izan.

Erakundeko langileen diruz lagun daitekeen kostua /orduko (ordainsari gordinak + karga sozialak) 60 eurokoa izango da, gehienez.



Auditoretzaren txostenari buruzko gastuak 1.100 euroko muga izango du.

Beste herrialdeetako fakturak dagokien itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira (ingelesez daudenak izan ezik); gainera, fakturen zenbatekoak eurotan adierazi behar dira, jatorrizko dibisa beste bat den kasuetan.

Proiektuaren enpresa jasotzaileetako langileen bidaiak eta egonaldiak diruz lagundu dira, baldin eta helbide fiskala eta soziala Bizkaian badute eta fakturak erakunde onuradunaren izenean badaude. Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren muga 30.000 euro izango da enpresa guztientzat.

#### 4. Diru-laguntzaren oinarria:

Diru-laguntzaren oinarria erakunde eskatzaileak aurkeztutako eta ebaluazio-prozesuan onartu diren gastuen batura izango da.

Diru-laguntzaren oinarria kalkulatzeko, proiektua egiteko aurkezten duen aurrekontua, gastu-kontzeptuka banakatuta, hartuko da kontuan.

Kontuan hartuko dira 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitartean egindako gastuak, jarduera gauzatzearekin lotura zuzena izanda, zentzuzkoak badira, merkatu-balioa gainditzen ez badute eta egokitzapen eta eraginkortasun printzipioak betetzen badituzte

### **8. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa**

Emango diren laguntzak itzuli behar ez diren diru-laguntzak dira. Erakunde onuradun bakoitzeko, gehienez:

- 75.000 euro erakunde onuradun bakoitzeko, proiektu berrietarako, baldin eta proiektuok aurretik ez badute laguntzarik jaso Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko Programan.
- 50.000 euro emango dira, 44/2018 Foru Dekretuaren bidez 2018an diru-laguntzaren bat jaso duten proiektuetarako.

Diru-laguntza diruz lagundu daitekeen oinarri zehatzaren %80 artekoa izan daiteke. Diru-laguntzaren oinarria balorazio irizpideen ondorioz lortutako puntuazioaren arabera izango da, tarte hauek oinarri hartuta:

- 60 puntu baino gehiago: %80.
- 30 eta 60 puntu artean: %60.
- 30 puntu baino gutxiago: %0.

Jarduera burutzeko unea zein den alde batera utzita, aurrekontu ekitaldi baten edo batzuen kontura esleitu ahal izango da laguntza.

### **9. artikulua. — Emateko prozedura**

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, eta hautaketa prozedura bakar baten bidez egingo da. Hala ere, kasuan kasuko aurrekontu ekitaldian, deialdi bat baino gehiago onartu ahalko da diru-laguntzen programan.

Dekretu honen ondorioetarako, hauxe hartzen da norgehiagokatzat: diru-laguntzak emateko prozesu honetan aurkeztutako eskabideak alderatu egiten dira, ezarri diren balorazio-irizpideekin bat etorritik, eskaera horien artean hurrenkera bat ezartzeko. Horrela, deialdi honen barruan eskura daitekeen kreditua muga moduan ezarrita, baloraziorik handiena lortu duten eskabideek jasoko dute diru-laguntza.

### **10. artikulua. — Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 1ean hasiko da, eta 2019ko apirilaren 1ean, 13:30ean, amaituko da.

**11. artikulua. — Balorazio irizpideak**

Erabilgarri dagoen aurrekontu mugaren arabera, onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela justifikatzen duten erakundeetatik, baloraziorik onena lortzen dutenek jasoko dituzte diru-laguntzak, honako irizpide hauen arabera:

**1. irizpidea. — Ingurumenaren gaineko eragina**

Irizpide honetan kontuan hartuko da lurralde osoaren lehiakortasunaren gaineko eragina.

Irizpide hau ebaluatzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: Bizkaiko sektore esanguratsu batean jarduerak izango duen eragina; industria sortzaileen sektorearen bultzada; sektore baten edo lurraldeko parte baten eskariei erantzutea, dauden plan estrategikoak kontuan hartuta; ingurumenari garrantzi handia ematen dion proiektua izatea; enplegu kualifikatua sortzeko duen eragina; emakumearen presentzia handitzea, batez ere presentzia eskasa duten sektoreetan.

**2. irizpidea. — Nazioartekotze-estrategia**

Irizpide honetan kontuan hartuko da diru-laguntza emateko eskatutako ekimenak zein nazioartekotze-estrategiatan dauden kokatuta.

Baloratu egingo da proiektuak sektore edo zonalde bateko eskariei erantzutea, lehendik dauden plan estrategikoetan oinarrituta.

**3. irizpidea. — Proiektuaren kalitatea eta egiteko gaitasuna.**

Irizpide honetan kontuan hartuko dira hainbat alderdi, lortu nahi diren helburuak, ekintzen plangintza, lan-taldea eta aginte-taldea, besteak beste

Irizpide hau baloratzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: ondo zehaztutako lan-plan bat (helburuak eta adierazleak, proiektuaren plangintza) aurkeztea, proiektuan lan egingo duten langileak, aurrekontuaren egokitasuna, proiektuari benetan atxikitako enpresen kopurua, eta proiektuaren aurrerapen-maila.

**4. irizpidea. — Erakundeen arteko lankidetzak**

Irizpide honetan, alderdi hauek hartuko dira kontuan: lankidetzan jarduten duten erakundeen kopurua, lankidetzak-mota eta lankidetzari eusteko konpromisoa.

Lehentasuna emango zaio Bizkaiko beste erakunde batzuekin lankidetzak akordioak edukitzeari.

**5. irizpidea. — Proiektuaren eragina enpresetan**

Irizpide honetan, proiektuak enpresan eta haren lehia-posizioan duen inpaktu positiboa hartuko da kontuan.

Irizpide hau ebaluatzeko alderdi hauek hartuko dira kontuan: kanpora batera eta ekintza bateratu batean hainbat enpresa ateratzea, proiektuan sartuta dauden enpresen eta sektoreen kopurua eta neurriak, enpresen nazioartekotze-mailaren handitzea eta enpresa-jardueraren dibertsifikazioa.

**6. irizpidea. — Konpromiso soziala eta iraunkortasuna**

Irizpidea honetan, kontuan hartuko da enpresak arlo hauetako ziurtagiriak eta /edo planak izatea: ingurumenaren iraunkortasuna, genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.

**7. irizpidea. — Eskatzailearen ezaugarriak**

Kontuan hartuko dira alderdi batzuk: neurriak, jarduera-sektorea eta aurreko deialdieetako eta beste deialdi batzuetako partaidetza, besteak beste.

Aurretik, Lankidetzari buruzko Programan, eta Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko Programan laguntzarik jaso ez duten erakunden proiektuei emango zaie lehentasuna.



Irizpide horiek honela neurtuko dira:

- 1. irizpidea: 26 puntu.
- 2. irizpidea: 10 puntu.
- 3. irizpidea: 30 puntu.
- 4. irizpidea: 10 puntu.
- 5. irizpidea: 23 puntu.
- 6. irizpidea: 6 puntu.
- 7. irizpidea: 5 puntu.

## **12. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak**

Dekretu honen onurei heldu nahi dieten erakundeek telematikoki aurkeztu beharko dute dokumentazio guztia, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bitartez, ondoren datozen ataletan xedatzen denaren arabera.

### **1. Eskabidea egitean**

- a) Eskabide telematikoa, behar bezala beteta eta erakunde eskatzailean nahikoa eskumen duen legezko ordezkariak sinatuta, 24. artikuluan zehaztutakoaren arabera. Eskabidean, proiektuaren balorazio zuzena egiteko behar diren datuak sartuko dira, bai entitateari bai proiektuari buruzkoak.
- b) Proiektuaren dossier osagarria, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
- c) Erakundearen estatutuak.
- d) Hitzarmeneko enpresen zerrenda.
- e) Proiektuarekiko atxikimendu-agiria, hala badagokio, parte hartzen duten erakundeetako bakoitzak sinatuta.
- f) Proiektua justifikatzen duten azterlan edo plan estrategikoak, hala badagokio.
- g) Proiektua garatzen duten erakundeen arteko lankidetzak-akordioa (hala badagokio), erantzukizun eta jardueren banaketa ezarrita. Ez dira lankidetzak-akordiotzat joko honako hauek: egoitza Bizkaian ez duten erakundeekin egiten direnak eta erakunde lotuen artean egindakoak. Lotura dagoela ulertuko da Kontabilitateko nazioarteko zenbait arau ezarri zituen Europako Batzordearen azaroaren 3ko (EB) 1126/2008 Erregelamenduan, hemendik aurrera (EB) 1126/2008 Erregelamendua, ezarritako kasuak ematen direnean, hain zuzen ere.
- h) Lankidetzan parte hartzen dutenek loturarik ez dutela egiaztatze aldera, zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko da. Aitorten hori erakunde eskatzailean loturarik ez dagoela egiaztatze ahalmen nahikoa duen pertsonak sinatuko du. Lotura hori (EB) 1126/2008 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera ulertuko da.
- i) Erakunde eskatzaileari lotuta ez dauden eta irabazteko asmorik ez duten erakundeek eta enpresek proiektuari emandako itzuli behar ez diren emarien ziurtagiria, zenbatekoa eta egoera adieraziz (agindutakoa edo ordaindutakoa).
- j) Proiektuan parte hartuko duten enpresek ordainduko dituzten ekarpenak edo kuotak.
- k) Hartzekodunaren fitxa, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web gunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.
- j) Eskuragarri dagoen Langileen Zerrenda Nominala RNT berriena.
- l) Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean ez dauden plantillako langileen kasuak: azken 2 nominak eta autonomoen azken ordainagiria.
- m) Ezagunak diren hirugarren alderdiek egindako ziurtagiriak edo aintzatespenak, erakunde eskatzaileak ingurumenarekin, gizarte erantzukizunarekin eta gi-





zon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzearekin duen konpromisoa egiaztatzen dutenak, hala badagokio.

- n) Kontziliazio planak eta berdintasun planak, halakorik baldin bada.

## 2. *Erdiko justifikazioa*

Erdiko justifikazioa aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 15etik 31ra, biak barne, izango da.

Honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Proiektuaren egoerari buruzko memoria, ordura arte egin diren jarduerak eta izaipideak adierazita.
- b) Dokumentazioa eman arte izan diren gastuen zerrenda.

## 3. *Bukaerako justifikazioa*

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko uztailearen 1etik 2020ko irailaren 30era bitartekoa izango da, bi egunok barne.

Diru-laguntzak justifikazio-kontuaren bidez justifikatu behar dira, eta 34/2010 Foru Dekretuaren 59. artikuluan aipatzen den auditoria txostena ere aurkeztu beharko da. Kontu horretan honako hauek aurkeztu behar dira:

- a) Diru-laguntza emateko ezarri diren baldintzak bete direla egiaztatzen duen jarduera-txostena, erakunde eskatzailean ahalmen nahikoa daukan pertsonak sinatuta. Txosten horrek bi zati izango ditu, bata teknikoa eta bestea ekonomikoa, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian dagoen eredu arabera.

Memoriaren alde teknikoan, diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuko da eta egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adieraziko dira.

Memoriaren alde ekonomikoan gastuen zerrenda sailkatua zehaztuko da, bestelako sarreraren xehetasun bat edo jarduera finantzatu duten diru-laguntzak jasoko dira. Horrez gain, gertatu diren desbideratzeak azalduko dira. Bi kasuetan, aurrekontuekin alderatuz.

Bukaerako Justifikazio epea amaitu baino lehen benetan ordaindutakoa hartuko da egindako gastutzat.

Bidaien gastuak justifikatzeko, diru-laguntzaren erakunde onuradunaren izenean egindako faktura aurkeztuko da, bidaia egin duten pertsonen zerrendarekin eta hegazkineratzeko txartelen kopiekin batera.

Egindako gastuen justifikazioan ez da onartuko, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren berariazko baimena ematen ez bada, foru dekretu honen 7. artikuluan aipatutako gastu-kontzeptuetako bakoitzaren diru-laguntza jaso dezakeen oinarria kalkulatzeko onartutako gastu guztien %20tik gorako goranzko desbideratzea. Desbideratze horiek ez dute ekarriko, inolaz ere, diru-laguntza jaso dezakeen oinarriaren gehikuntzarik, ezta emandako diru-laguntzarena ere.

- b) Langile-kostuak justifikatzeko:
- Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean: azken langileen izenen zerrenda (TC2).
  - Langile autonomoen raubidearen kasuan: azken 2 nominak eta autonomoen azken ordainagiria.
- c) Sinatutako kontratuak, dekretu honen 32. artikuluan ezarritako baldintzen arabera horrela egin behar denean; eta eskatutako eskaintzei buruzko informazioa eta ekonomia eta eraginkortasun irizpideen arabera aukeraturikoen justifikazioa, goiko artikuluko horren arabera kontratazioaren uneak hala egitea eskatzen badu.
- d) Kontu-auditoreen jarduerari buruzko araua onartzen duen Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan ezartzen



denaren arabeko auditoria-txostena. Foru agindu horren 3. eta 7. artikuluetan daude jasota gaiari buruzko edukia eta irismena.

- e) Azterlanen kasuan, kopia osoa, formatu digitalean.

Edonola ere, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak erakunde eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak edota informazio osagarria eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta aztertzeko. Eska daitezkeen agiri horiek eskatzen diren unean zehazten den epean aurkeztu behar dira.

Behar izanez gero, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bere ustez egokiak diren bilerak hitzartu ahal izango ditu, uneoro diruz lagundutako proiektuaren egoeraren berri izateko.

Eta 6. artikuluan aipatutako kasuetan proiektua gauzatzeko epea luzatzea onartzen denean, proiektuaren amaierako justifikazioa luzapena ematen duen ebazpenean ezarritako epearen barruan aurkeztu behar da, eta betiere, 2019ko azaroaren 15 baino lehen.

### **13. artikulua.— *Jakinarazpen elektronikoa***

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egiteko orduan, bide elektronikoak erabiliko ditu, Herri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen, hemendik aurrera 39/2015 Legea, 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Baliabide elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://www.ebizkaia.eus>) bertaratuz egingo dira, Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

## **II. TITULUA**

### **DIRU-LAGUNTZETARAKO BETEBEHARRAK ETA XEDAPENAK**

#### **14. artikulua.— *Aurrekontuaren muga***

Aurkeztutako eskabide guztietatik, laguntza hauetarako ezarri den partidan izendatutako aurrekontuak uzten duen beste eskaera baino ez dira hautatuko.

#### **15. artikulua.— *Diru-laguntzen bateragarritasuna***

Dekretu honen babesean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako eman ditzaketan bestelako laguntzekin. Hala ere, Diru-laguntzen Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera. Kontuan hartu behar da ere beste diru-laguntza horiek arautzen dituen arautegiak horren inguruan ezartzen duena.

Nolanahi ere, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari jakinarazi behar diote beste diru-laguntzarik jaso duten, diru-laguntza hori eman den data edozein dela ere. Horrek guztiak hala behar du, 5/2005 Foru Arauaren 18. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan ezarritako ondorioetarako. Horrela, beraz, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da eta, hala badagokio, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila beste finantzatzaileekin harremanetan jarri ahalko da baterako finantzaketa adosteko.

**16. artikulua.—Laguntzaren publizitatea**

Dekretu honen itzalpean emandako laguntzen onura jasotzen duten eskabideek jasotako laguntzari publizitatea eman beharko diote, 5/2005 Foru Arauaren 17.3 artikuluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proiektuaren finantziazioaren izaera publikoari buruzko publizitate egokia –euskarri informatikoetan zein bestelakoetan– egiteko, esaldi hau sartu beharko da: «Proiektu hau Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du, Nazioarteko Partzuergoak Sustatzeko Programa 2019. urterako arautzen duen Foru Dekretuaren bidez». Guztiz debekatuta dago beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

**17. artikulua.—Deslokalizazioa**

Enpresa eta erakunde onuradunek enpresako deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute; Enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektorre Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauan xedatutakoa joko da deslokalizaziotzat; foru dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzei bete-betean aplikatuko zaie foru arau hori.

Konpromiso hau ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren akordioaren bidez adieraziko da, eta emandako diru-laguntza itzultzeko arrazoia izango da, aipatu foru arauan xedatutako prozedura aplikatuz.

**18. artikulua.—Erakunde laguntzaileak**

BEAZ, S.A.U. sozietate publikoak erakunde laguntzaile gisa jardun ahal izango du dekretu honetan araututako diru-laguntzetan.

Erakunde laguntzaile legez garatu beharreko jarduerak arautzeko, 5/2005 Foru Arauaren 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera, lankidetzeta hitzarmen bat formalizatu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiarekin. Hitzarmenak sozietate horrek onartzen dituen baldintzak eta eginbeharrak arautuko ditu.

**III. TITULUA****DIRU-LAGUNTZAK ESLEITZEKO PROZEDURA****19. artikulua.—Eskabideak nola aurkeztu**

Ondoko hau izango da eskabideak aurkezteko prozedura:

Eskabidea eta erantsitako memoria, behar bezala eta oso-osorik beteta, Internet bidez aurkeztu behar da. Horretarako, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian ([www.bizkaia.eus/sustapena](http://www.bizkaia.eus/sustapena)), bere bulego birtualari dagokion atalean dagoen formularioa erabili behar da.

Bulego birtualera sartzeko, beharrezkoa izango da interesdunek sinadura elektronikorako ziurtagiria (Izenpea, NAN elektronikoa, B@k, FEA, B@kQ, ....) izatea. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan (Orueta Apezpikua, 6, Bilbo) eska daiteke B@KQ ziurtagiri elektronikoa.

Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erakundearen erregistroan alta emanda egotea (61/2010 Foru Dekretua, apirilaren 27koa. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 80 zenbakia, 2010.eko apirilaren 30ekoa). Egoera horretan ez badago, erakundeak inskribatzeko eskaera bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

Nolanahi ere, organo instruktoreak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldekatu edo banakatu ahal ditu, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta diru-laguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

Eskatzaileak, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio organo instruktoreari, 3. artikulua aipatu inguruabarren egiaztapena zuzenean lor ditzan; hori,



34/2010 Foru Dekretuaren 17.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ziurtagiri telematiko egokien bidez egin daiteke.

Eskabideekin batera, 12.1 artikuluan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira, ares-tian aipatu bulego birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabilia.

**20. artikulua.— *Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebartziko duten organo eskudunak***

Diru-laguntza eskabideak Kanpo Sustapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrak ebartziko ditu, Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiko titularrak egindako proposamenean oinarrituta.

Emakida prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkariak orekatua dagoela; horrek esan nahi du bi sexuak izan beharko dutela ordezkariaren bat, 4/2005 Legeak ezarritakoari jarraiki.

**21. artikulua.— *Gastuen doikuntza***

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, diru-laguntzaren oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

**22. artikulua.— *Norgehiagoka***

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, eta hautaketa prozedura bakar baten bidez egingo da. Hala ere, kasuan kasuko aurrekontu ekitaldian, deialdi bat baino gehiago onartu ahal da.

Dekretu honen ondorioetarako, hauxe hartzen da norgehiagokatzat: diru-laguntzak emateko prozesu honetan aurkeztutako eskabideak alderatu egiten dira, ezarri diren balorazio-irizpideekin bat etorriz, eskaera horien artean hurrenkera bat ezartzeko. Horrela, deialdi honen barruan eskura daitekeen kreditua muga moduan ezarrita, baloraziorik handiena lortu duten eskabideek jasoko dute diru-laguntza.

**23. artikulua.— *Txostenaren instrukzioa***

Eskabideen espedienteen instrukzioa honela egingo da:

Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, organo instruktoreak errekerimendua egingo dio eskabidea aurkeztu duen erakundeari, jakinarazpena egin den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, hamar (10) egun balioduneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela uste izango dela berariaz emango den ebazpenaren bitartez. 39/2015 Legearen 68 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Organo instruktoreak egiaztatu egingo du foru dekretu honetan onuradunaren izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.

Nolanahi ere, organo instruktoreak aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakundeei.

**24. artikulua.— *Eskabideen ebaluazioa***

- a) Organo instruktoreak ebaluatuko ditu eskabideak, eta behin betiko ebazpenari buruzko proposamena prestatuko du; hala ere, horrek ez die proposamen horretan onuradun legez agertzen diren erakundeei inolako eskubiderik emango.
- b) Diru-laguntzarako eskabideen ebaluazio-irizpideak dekretu honen 11 artikuluan daude ezarrita.



- c) Proiektuak jaso diren agiriak kontuan hartuta ebaluatuko dira. Beharrezkoa dela jotzen denean, proiektuan inplikaturik dauden enpresako pertsonekin elkarrizketa bat egingo da, jasotako informazioa egiaztatzeko.
  - d) Azkenik, ondorioei buruzko txosten bat idatziko da, azken balorazioa jasoko dena, eta handik aterako da aurkeztutako proiektuak antolatzeko hurrenkera.
  - e) Proiektu batzuek guztira puntuazio bera lortzen badute, honela ezarriko da haien arteko lehenetasun-hurrenkera:
    - 1. irizpidean puntuaziorik handiena lortzen duen proiektua lehenengo jarriko da azken hurrenkeran.Berdinduta jarraituz gero, prozedura bera erabiliko da 2. irizpidearekin, eta hala jarraituko da 6. irizpidera arte.
- Oraindik ere berdinduta jarraitzen badute, eskabidea aurkeztu zen hurrenkera hartuko da kontuan.

**25. artikulua. — Ebazpen proposamena**

Ebaluazioa egin ondoren, organo instruktoreak egiaztatuko du pertsona edo erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela. Horretarako, eskaria egingo dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzailearen zerga-egoerari buruzko ziurtagiria eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Behin egiaztatuta, organo instruktoreak Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiari ebazpen proposamena igorriko dio.

**26. artikulua. — Ebazteko epea**

Foru dekretu honen itzalpean aurkeztu diren eskabideak ebazteko gehieneko epealdia 6 hilabetekoa izango da deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik.

Organo eskudunak, nolana ere, aurkeztutako eskabide guztientzako ebazpena eman behar du nahitaez. Ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, administrazio-isiltasunaren ondorioz eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, horrela xedatzen baita 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

**27. artikulua. — Ebazpena**

Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen proposamena, eta hark ebazteko du dagokion foru aginduaren bidez.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen arrazoitu bakarraren bidez ebazteko dira eskabideak. Foru dekretu honetan edo deialdi bakoitzeko araudian xedatutakoa kasu bakoitzera egokitu eta aplikatzeko asmoz, komenigarritzat jotzen denean, diru-laguntza emateko ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, proiektuen izaera berezia delako edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla eta.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez.

Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak hamar (10) egun balioduneko epea izango du, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baiezkota emateko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute ezer adierazi, ebazpena onartu dela ulertuko da.

Diru-laguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

**28. artikulua.— Errekurtsoak**

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Haren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete bat igaro baino lehen, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

**29. artikulua.— Diru-laguntzari uko egitea**

Onuradun gertatu diren pertsonetako edo erakundeetakoren batek diru-laguntzari uko egingo balio, diru-laguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, puntuazio ordenari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko behar besteko kreditua liberatu bada.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epean diru-laguntza proposamena onets dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Diru-laguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organok laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

**30. artikulua.— Diru-laguntza ordaintzea**

Diru-laguntzak zuzenean ordainduko zaizkio erakunde onuradunari. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak ordainduko ditu, era honetara:

Emandako diru-laguntza onartu eta proiektuaren egoeraren laburpena jaso ondoren ordainduko da lehen urtekoa.

Bigarren urtekoa, horrelakorik badago, jarduera amaitutakoan aurkeztutako justifikazioan aurkeztu den dokumentazioaren balioa egiaztatu ondoren ordainduko da.

Diru-laguntzaren betebeharra aitortu eta hura ordaindu aurretik, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada erakunde onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen 38. artikuluan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik xedatzen den prozedura abiaraziko da.

**IV. TITULUA****DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA****31. artikulua.— Azpikontratazioa**

Aurkeztutako proiektuei dagokienez, gehienez %80 azpikontratatu ahalko da, baina, horretarako, 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak bete beharko dira.

4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, diru-laguntzaren xedea gauzatzeko agindua jasotzen duten erakundeek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, bere lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Diru-laguntzaren erakunde onuradunak diru-laguntzari dagokion jardueraren zati bat hirugarren batzuekin ituntzen duenean, jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren %20 baino gehiago bada eta, gainera, azpikontratazioaren prezioa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu beharko dio azpikontratazio hori egin ahal izateko baimena; horretarako, azpikontratazioaren baldintza nagusiak eta zer erakunderekin itundu den jarduera burutzea adierazi beharko dira.



Kanpo Sustapenerako eta Turismorako zuzendari nagusiak ebatziko du eskabide hori, hamabost (15) eguneko epean. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean eskabideari oniritzi zaiola pentsatuko da.

**32. artikulua.— Eskaintzak aukeratzea**

Diruz lagundu ahal den gastu baten zenbatekoa 40.000 euro baino gehiago denean, obra burutzeko, edo 15.000 euro baino gehiago denean, ekipamenduko ondasunak hornitzeko edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresen zerbitzuak emateko, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen, salbu eta diru-laguntzen foru arauan ezarritako egoeretakoren bat gertatzen bada betebeharraren salbuespena sortzeko.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo, bestela, diru-laguntzaren eskaeran aurkeztu behar dira. Eskaintza horien arteko aukeraketa eraginkortasun eta ekonomi irizpideen arabera egingo da. Proposamenik merkeena ez baldin bada aukeratzen, zergatia memoria batean berariaz bidezkotu behar da.

**33. artikulua.— Jarraipena**

Foru dekretu honetan aurrez ikusitako laguntzen erakunde onuradunek agiri bidez justifikatu beharko dute gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak eta betetzen dituztela laguntzak lortzeko foru dekretu honetan, dagokion deialdian eta emakida-ebazpenean ezartzen diren baldintzak. Horrez gainera, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta, hala dagokionean, erakunde laguntzaileak eskatuta, edozein momentutan justifikatu beharko dituzte alderdi horiek.

Diru-laguntza ematen duen organoak emate-erabakia ofizioz aldatu ahal izango du funtsak aplikatu aurretik eta interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren, diru-laguntza emateko betekizunetako bat aldatu egin bada eta, ondorioz, xedetzat hartu izan den interes publikoa bete ezin bada edo betetzeko zailtasunak izan baditu eta, bide batez, onuradun gertatu den pertsonari edo erakundeari kalte ekonomikorik eragin ez bazaio.

Onuradun gertatu diren pertsonak edo erakundeak, halaber, laguntza ematen duen erakundeari diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzeko eska diezaioke diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik, betiere aipatu berri dugun aldaketaren bidez aldeztu aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jardueraren barne dauden egintzak aldatu nahi badira. Eskaera horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, betiere diru-laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen esku-bideak urratzen ez badira.

39/2015 Legearen 32. artikulua ezartzen duenaren arabera, ezin izango da errekurtsorik jarri epeak luzatzeari edo horretarako baimena ukatzeari buruzko erabakien kontra, prozedura bukatutzat ematen duen ebazpenaren kontra bidezkoa denari kalterik egin gabe.

Kasu horietan, onuradun gertatu den erakundeak jaso duen eta justifikatu ez duen diru-kopurua bueltatu beharko du, baita diruaren legezko interesa ere.

**34. artikulua.— Justifikatzeko epea**

Diru-laguntzak 12. artikuluan ezarritako epearen barruan justifikatu beharko dira, frogagiriaren bidez.

Justifikazioa egiteko epea igarota, ez bada justifikaziorik aurkeztu organo instruktorearen aurrean, organoak erakunde onuradunari eskatuko dio hamabost (15) eguneko epean aurkez dezala. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira.

**35. artikulua.— Laguntzaren xedea justifikatzeko modua**

Diru-laguntzak justifikatzeko orduan, 12. artikuluan ezarritako agiriak aurkeztuz egingo da.



Justifikazioa Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta. Horretarako, galdetegi bat bete behar da, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian dagoena, bulego birtualean (<http://web.bizkaia.eus/es>).

**36. artikulua.— Baldintzak aldatzea**

Erakunde onuradunak diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu direla adierazten bada justifikatzeko orduan eta aldaketa horien ondorioz, dekretu honen 33 artikuluan araututakoarekin bat, ebazpena aldatzeko arrazoiren bat balego eta aldaketa onartzeko aurretiazko baimen administratiboa lortzeko izapidea egin ez balitz, diru-laguntza eman duen organoak onuradunek aurkeztutako justifikazioa onartuko luke. Kasu horretan, onuradun den pertsonak edo erakundeak 5/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, dagokion zigorra jaso ahalko du.

## V. TITULUA

**DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK**

## I. KAPITULUA

**DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA****37. artikulua.— Diru-laguntza erakunde onuradunak berak itzultzea**

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dituzte, diru-laguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

Onuradunak berak eskatuta diru-laguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberrako ordainketa-gutunak erabili behar da.

**38. artikulua.— Ez betetzeak**

Foru dekretu honetan nahiz aplika daitezkeen bestelako arauetan ezarri diren baldintzak zein, hala denean, ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira; baita kopuru horien interesak ere, halakorik sortu bada. Halaxe adierazten baita 5/2005 Foru Arauaren II eta IV Tituluetan, dagozkion legezko ekintzen eta zehapenen kalterik gabe. Aipatutako zenbatekoak, diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

**39. artikulua.— Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak**

Beste diru-laguntza batzuk ere jaso direlako, gehiegizko finantzazioa gertatzen bada, behar denaren gainera jasotako diru-kopurua itzuli beharko da, halaxe ezartzen baita 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan. Kopuru horri, gainera, dagokion berandutza-interesa aplikatuko zaio.

Proiektuan aurrez ikusitako ekintza guztiak burutu ez badira eta eginiko ekintzen kostuak hasieran aurrez ikusitakoaren %50era heltzen denean, jaso bai baina justifikatu ez diren kopuruak eta horiei legez dagozkien interesak itzuli beharko dira, diru-laguntza eman duen organoaren iritziz, oro har, diru-laguntza horrek bilatutako helburuak bete badira. Aurrez ikusitako jarduera kopuruaren %50 baino gutxiago gauzatu bada, jasotako kopuruaren %100 gehi kopuru horri dagozkion berandutza-interesak itzuli beharko dira.

## II. KAPITULUA

**DIRU-LAGUNTZEI DAGOZKIEN ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK****40. artikulua.— Zehapen-prozedura**

5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren ezarritakoa bete beharko da.

Aplikatu beharrekoa izango da 39/2015 Legearen IV. tituluaren ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko





Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

**AZKEN XEDAPENAK****Lehen Azken Xedapena. – Ezarri beharreko arautegi orokorra**

1. Foru dekretu honetan adierazitako diru-laguntzak, foru dekretu honetan bertan zehaztutakoa bete beharko dute, baita diru-laguntzak emateko foru aginduetan ezartzen diren baldintzak, 5/2005 Foru Arauan eta 34/2010 Foru Dekretuan xedatutakoa eta aplikatu daitezkeen estatuko edo erkidegoko gainerako arauak ere.

2. 39/2015 Legea aplikatuko da.

3. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratorritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra), eta 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa.

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena.

Halaber, erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

**Bigarrena Azken Xedapena. – Arauen garapena**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko diputatuak ahalmena izango du honako dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontu-zuzkidura amaitu ezean, deialdi berriak egiteko ere.

**Hirugarrena Azken Xedapena. – Aurrekontuko zuzkidura**

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 840.000 euro, jarraian zerrendatzen diren aurrekontu-partidetatik, aurrekontu-proiektuetatik eta urtekoe-tatik ordainduko dira. Hona hemen diru-kopuru horiek, gutxi gorabehera berezita. Partida guztietan, aurrekonturako ezarritako kopuru osoa izango da muga, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa bada Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrean.

Proiektuaren zk.: 2008/0206	
08.07/45100/426.108	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2019	340.000
2020	500.000
GUZTIRA	840.000



34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua babesean, aurrekontuko zuzkiduren zenbateko osoa handitu ahal izango da, gehienez ere 600.000,00 euro gehituz, eta foru dekretua aldatzeko beharrik gabe, honako egoeretako bat ematen denean:

- a) Eskuragarri dauden kredituen gehikuntza egotea, kreditua handitzea onartu delako edo kreditua sortu edo erantsi delako.
- b) Zenbateko osagarri bat egotea, zenbateko hori lehenago ebatzitako deialdietatik ateratakoa bada, deialdi horietan gastua hasieran aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako.

Aipatutako kopurua horretarako eskumena duen organoak gehitu ahal izango du, deialdi berririk egin gabe, emakidaren ebazpena eman baino lehen edozein unetan, eta, hala badagokio, aurrekontuko aldaketa onartu ondoren. Kopuru osagarri hori eraginkorra izateko kreditu erabilgarria dagoela adierazi beharko da diru-laguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

#### **Laugarrena Azken Xedapena. – Indarrean jartzea**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

##### **Lehen Xedapen Iragankorra**

Arau honetan zehaztutako eremuan egon arren, aurreko arautegi baten arabera eman diren diru-laguntzek eman zituen arautegiak xedatzen duena bete beharko dute iraungi arte.

##### **Bigarren Xedapen Iragankorra**

Dekretu honen 13. artikuluan ezarritako jakinarazpen elektronikoari buruzko betebeharrari dagokionez, jakinarazpena egiten denean prozedura ez badago teknikoki amaituta, jakinarazpena paperean egingo da, posta ziurtatuaren bidez.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko dira foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak

Bilbon, 2018ko abenduaren 14an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena  
Sustatzeko foru diputatua,  
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

**I. ERANSKINA**

Dekretu honetako 5. artikuluan adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen artean, enpresek EJSN -2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. zenbakiko EAOn argitaratua) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomiko nagusia:

- B atala: Erauzketako industriak.
- C atala: Manufaktura-industria.
- D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornidura.
- E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):
  - 41.1. taldea. Higiezinaren sustapena.
- G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):
  - 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.
- H atala: Garraioa eta biltegiatzea.
- I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):
  - 56.3 taldea. Edaritegiak.
- J atala: Informazioa eta komunikazioak.
- M atala: Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.
- N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak.
- P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):
  - 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak.
- Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):
  - 87. multzoa. Egoitzetako laguntza.
  - 88. multzoa. Gizarte zerbitzuak, ostaturik gabe.
- R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):
  - 90. multzoa. Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak.
  - 91. multzoa. Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk.
  - 93.2 taldea. Aisialdi eta entretenimendu jarduerak.
- S atala: Bestelako zerbitzuak (multzo hau baino ez):
  - 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen ez den jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahalko dira, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.